



EMAKUMEEN AURKAKO  
INDARKERIARI EZ  
NO A LA VIOLENCIA  
CONTRA LAS MUJERES

## AZAROAREN 25EKO ADIERAZPENA, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA

Azaroaren 25 honetan, Indarkeria matxisten aurkako Nazioarteko Egunean, Pasaia Udalean ordezkariak dugun talde politiko guztiok, aho batez salatu nahi dugu indarkeria matxistaren izaera estrukturala, eta gure konpromiso irmoa adierazi emakumeen aurkako bortizkeriarik gabeko gizarte baten aldeko lanean jarraitzeko.

Nazioarteko zuzenbide-esparruak adierazten duen bezala, genero-arrazoiek eragindako bazterkeriaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren artean lotura zuzena dago. Horregatik, ezinbestekoa da biktimei, euren inguruari, eta indarkeria matxistatik bizirik atera direnei arreta, babesa eta laguntza bermatzea; baina, aldi berean, beharrezkoa da esku-hartze integral bat: prebentzioa, detekzioa, arreta, babesa, koordinazioa, justizia eta erreparazioa uztartuko dituen.

Berdintasunean oinarritutako gizarte bat eraikitzeko konpromiso horretatik abiatuta, gure erronka da erreparazio-eskubidea emakumeen aurkako indarkeriari ematen zaion erantzunean txertatzea.

Funtsezkoa da, halaber, biktimei eta haien elkarteei ahotsa eta protagonismoa ematea, erreparazio-prozesuak proposatzeko duten zilegitasuna aitortuz.

Indarkeria matxistak hildako emakumeen inguruaren nahiz bortizkeria horretatik bizirik irtendako biktimen erreparaziorako, ezinbestekoa da zerbitzu eta erreminta guztien hobekuntza sistematikoki aztertzea eta osatzeko baliabideak jartzea. Erreparazioaren bidez, indarkeriaren ondorioak arindu eta emakumeen osaketa bilatu behar dugu, bai pertsonala bai soziala.

Era berean, gure inguruan antzematen ditugun errealitate berriek —hala nola, indarkeria digitalak edo gazteen artean zabaltzen ari diren kontrol eta eraso moduek— prebentzio eta sentsibilizazio espezifikoak eskatzen dituzte.

Horrenbestez, Pasaia Udaketik honako konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Herritarren eta bereziki gazteen sentsibilizazioa sustatzen jarraitzea Goxatu programaren bidez, hezkuntzan eta prebentzian indarkeria matxistaren adierazpen berriak —digitalak barne— landuz.
- Berdintasun arloa eta Gizarte Zerbitzuak indartzen jarraitzea, baliabide tekniko zein giza baliabideen bidez.
- Indarkeria matxistaren aurkako erantzunerako plan eta protokoloak eguneratu eta erakundeen arteko elkarlana indartzea, herriko elkarte feministekin elkarlanean.
- Halaber, protokolo horien jarraipen, ebaluazio eta hobekuntza bermatzen jarraituko dugu ikuspegi feminista ardatz hartuta, herritarrak inplikatu.
- Parte-hartzerako eta ahalduntzerako espazioak babestu eta indartzea (kasu, Jabekuntza eskola, emakumeen guneak, edo Berdintasun Mahaia).
- Oarsoaldeko udalon ekimena den *Indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko emakumeentzako gunearen* jarraipen eta garapena bermatzea.
- Datu-sistemak hobetzea, emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko estatistikak jasotzeko eta aztertzeko eredu berriak sortuz.

- Erreparazio-eskubidea udal agendan txertatzea, emakumeen osaketa pertsonala eta soziala erdigunean jarriz.
- Erakundeen arteko koordinazioa sendotzea, protokoloak aktibo mantenduz eta esku-hartze integrala bermatuz.
- Gizarte zibila, mugimendu feminista eta herritarrak inplikatzeko jarraitzea udal politika eta neurrietan.
- Erakunde guztien arteko adostasun zabala bultzatzea, emakumeen aurkako indarkeria behin betiko desagerrarazteko behar diren baliabideak eta neurriak bermatzeko.

Azaroaren 25ean, eta urteko egun guztietan, Pasaia Udalak emakumeen bizitza, askatasuna eta duintasuna defendatzeko konpromisoa berresten du.

**Indarkeria matxistatik gabeko Pasaia baten alde, elkarrekin, irmo eta etengabe jardungo dugu.**